



Elexalde Auzoa,9  
48288 ISPASTER ( Bizkaia )  
Tfnoa.: 946842999 –946844025  
Faxa.: 946243470  
[kulturetxea@ispaster.net](mailto:kulturetxea@ispaster.net)  
[www.ispaster.net](http://www.ispaster.net)

## **ISPASTERKO UDAL GAZTEGUNEKO SARRERA ETA ERABILPEN ARAUAK**

Ispasterko Udal Gaztegunea jabari eta zerbitzu publikoko udal ondasuna da. Bere zerbitzua Ispasterko 12-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta elkargune bat da, gazteek euren eskakizunak zein ekimenak sortu eta garatu ahal izango dituzte.

Ispasterko udalak gazteen esku jartzen duen ekipamendua da, gazteen interesekoak diren jarduerak garatzeko eta horientzako baliabide ezberdinak eskaintzeko: mahai-jokoak, aldizkariak, argitalpenak, joko handiak...

2017ko udaberrian egindako gazteen parte-hartze prozesuaren bitartez udal gazteguneko oinarriak ezarri ziren arautegi hau egiteko.

### **1.-Erabiltzaileak**

**1.1.-** Ekipamendu honen erabiltzaileak Ispasterko udalerrian erroldatuta dauden 12-18 urte bitarteko gazteak izango dira.

**1.2.-** Erabiltzaile izateko, dagokion inprimakia bete beharko dute Ispasterko Udaletxean eta bost euroko bermea jarri beharko dute sarrera txartela hartzeko.

**1.3.-** Gazte guneko erabiltzaileak izateak arau hauen ezagutza eta onarpena dakar.

### **2.- Egutegia eta ordutegia**

**2.1.-** Ispasterko udal gaztegunea urte guztian zehar zabalik egongo da, ondorengo hilabeteetan izan ezik:

- Uztaila
- Abuztua
- Iraila

**2.2.-**Gaztegunek ondorengo ordutegia izango du:

Astelehenetik ostegunera: 15:00etatik 22:00etara.

Ostiraletan: 15:00etatik 00:00etara.

Larunbatetan, jai egunetan eta eskolako oporraldian: 10:00etatik 00:00etara.

Igandeetan: 10:00etatik 22:00etara.

**2.3.-** Udalak eskubidea dauka ordutegia eta egutegia aldatzeko, betiere denen onerako bada eta gainerako udal jardueren funtzionamendu egokirako. Erabiltzaileek egoki ikusten badute, idatziz udalean aurkeztu ahal izango dute ordutegi edo egutegi aldaketa eskaria, eta udalak egoki ikusten badu aldatu egingo du.



Elexalde Auzoa,9  
48288 ISPASTER ( Bizkaia )  
Tfnoa.: 946842999 –946844025  
Faxa.: 946243470  
[kulturetxea@ispaster.net](mailto:kulturetxea@ispaster.net)  
[www.ispaster.net](http://www.ispaster.net)

### 3.-Sarbidea

**3.1.-** Doako zerbitzua eta sarbide librekoa da erabiltzaileentzat; betierek, ez badu kontrakorik adierazten udalak, jarduera bereziren bat egiteko.

**3.2.-**Erabiltzaileek ez direnek ere erabili ahal izango dute gaztegunea; betiere, erabiltzaile den batekin sartu eta egoten badira. Gerta litezkeen liskar eta apurketen aurrean sarrera utzi dion erabiltzailea izango da arduradun.

### 4.- Erabiltzaileen betebeharrak

**4.1.-** Erabiltzaileek errespetuzko eta duintasunezko tratua izan beharko dute bai gazteguneko gainerako parte-hartzaileekin baita bertan sartzen diren edozein pertsonarekin (udal langileak...)ere.

**4.2.-** Zerbitzu honen erabiltzaileek instalazioen, ekipamenduen eta gazteguneko gainerako materiala zaindu beharko dute, eta berauek gaizki erabiltzetik sor daitezkeen hondatzeak saihestu.

**4.3.-** Gazte gune barruan ezin da edari alkoholikorik edan ezta erre.

**4.4.-**Ezin da animaliekin edo edozelako tresnekin (txirrinda, patin...)gaztegunera sartu; betiere, pertsonaren mugikortasunerako edo orientaziorako beharrekoa ez bada.

**4.5.-** Norberaren gauzak zaintzea gomendatzen da, izan ere Udal gaztegunek ez ditu bere gain hartzen gerta litezkeen lapurretak eta galerak.

**4.6.-**Gaztegunean liskarrak edota kalteak eragiten dituzten erabiltzaileek, edo gainerako erabiltzaileekiko behar den errespetua agertzen ez dutenek, Ispasterko Udalak har ditzakeen eta egoki ikusten dituen neurrietara egokituko dira, gazteguneko funtzionamendu egokia bermatze aldera. Neurri horietako bat da pertsona bat gazteguneko erabiltzaile izateari uztea, udalak egoki irizten dion denboran.

**4.7.-**Gazteguneko erabiltzaileek garbi mantendu beharko dute, eta Ispasterko udala arduratuko da material hori hornitzeaz.

**4.8.-** Udalak edozein momentutan egin dezake ezusteko bisita.

### 5.- Arazoak

**5.1.-** Udal gazteguneko erabiltzaileek arazoren bat izanez gero, udalarekin jarri beharko dira harremanetan, hark emandako kontaktuaren bitartez.

**5.2.-**Gaztegunean telefono garrantzitsuen zerrenda bat jarriko da.

### 6.- Arau-hausteak

**6.1.-** Arau-hausteen larritasuna udalak erabakiko du, gertatutakoaren arabera.



Elexalde Auzoa,9  
48288 ISPASTER ( Bizkaia )  
Tfnoa.: 946842999 –946844025  
Faxa.: 946243470  
[kulturetxea@ispaster.net](mailto:kulturetxea@ispaster.net)  
[www.ispaster.net](http://www.ispaster.net)

**6.2.-** Arau-hauste oso larritzat joko da:

- Gaztegunean kalte larriak eragitea.
- Garrantzizko sesioak eragitea.

**6.3.-** Arau-hauste larritzat joko da:

- Bi arau-hauste arin izateak.
- Errespetu falta, sesio edo kalte arinak eragitea.
- 4.3. puntuan zehaztutako arauak ez betetzea.

**6.4.-** Gainontzeko arauak ez betetzeak arau-hauste arintzat joko dira.

## **7.-** Zigorrak

**7.1.-** Arau-hauste arina bada erabiltzaileak jakinarazpen bat izango du.

**7.2.-** Arau-hauste larria bada, erabiltzaileak gazteguneko kide izateri utziko dio aldi baterako eta kalteak eragin baldin baditu haiek ordaindu.

**7.3.-** Arau-hauste oso larria bada, erabiltzaileari gazteguneko sarbidea galaraziko zaio eta kalteak eragin baldin baitu haiek ordaindu.